

ZIENTZIA, EGIA, ETIKA

Irakurri nuen lehenengo egunean zientzia neutrala dela, zientziak ez duela moralakin zerikusirik ezer. Eta hori ez da egia. Zeren zientziaren helburu gorena egia baita, zientzien zientzia den filosofiaren helburu bera, eta edozein zientifiko seriok onartu egiten dit hori. Eta izaki arrazionalen artean egia bada helburua, helburu hori badago kodigo etikoetan markatua, hala nola Moisesen manamenduetan: ez duzu testimonio faltsurik emango ezta gezurrik ere esango. Hor bada inplizituki egiaren aldeko manamendu bat, eta beraz, behintzat etika sobrenaturalista dugunok badugu esaten eta konfirmatzen ezen zientziak harreman oso estua duela etikarekin. Eta erran ere etikaren manamenduaren pean diharduela zientifiko ganorazkoak (ganoragabeak badaudelako, gauza jakina da).

Eta zientzian aritzeko bizirik egon behar da, hildakoek ez dute zientziarik egiten. Eta badago beste manamendu bat debekatzen duena hiltzea, eta nola ez duen besterik zehazten hiltze hori hartu behar dugu, etika sobrenaturalista dugunok, hiltze hori hartu behar dugu bere zentzurik zabalenean, ez beste bat, ez norberaren burua, ezta ere humano potentzian den enbrioia, kontzepzioaren momentutik bertatik.

Eta hemen badira planteatzen eztabaidak eta debateak eta polemikak. Zientifikoa bizirik egotearekin, esan dakidake,

nahikoa da zientzia posible izateko. Baina nik hemen aurkitzen dut egia handi bat, zeren denok baikara diferente, eta hain da nabaria indibidualizazio printzipioa ezen ahaztu ere egiten da, eta hitz egiten da denen arteko berdintasunaz eta hola. Hizpide hori oso gustuko dute iraultzaileen beroan edukatutakoek. Baina begien bistan dago nola denok, baita unitelinoak ere, garan diferente. Eta hortik sortzen dira hierarkiak, mota anitzetakoak eta faktore diferenteen erlazioan, gurutzatuz eta interaktuatuz manera guztietan, esan daiteke, eta jakina, dena igarotzea den kosmos honetan bariabileak eta alagarriak.

Eta egiaren bilatzean faroarena egiten duen helburu maximoa da ezagutza unibertsala, zeina esperientzia material orotik gain dagoen. Beraz, helburu hori eztabaida ezina bada ere lortu ezina ere bada kosmos honetan. Nik esaten dut, eta hola diot ondorioztatua dudalako, egiazko ondorio erlazioen bidez, ezen Jesusek baduela erakusten Berak baduela ezagutza hori, eta hortik bakarrik, ateo batek ere onartzen dit, salbazioa, irtenbidea, problema handien soluzioa.

Baina ezagutza unibertsalaren bila gabiltzanok ohartu beharko ginateke ezen horretarako guzti-guztia hartu behar dela aintzat, ezer bazterrean laga gabe. Hierarkiak egiten ditugu, baina hierarkizazioen maila guztiak dira estudiatu behar eta arretaz zaindu behar beti. Zeren ezin baitaiteke, bilatzen dugunari ziztada mortala eman gabe, ezagutza unibertsalari, ezin baitaiteke ezer albo batera gutietsi behar. Hori eginez gero bidez okertuak gaude, eta gure bizitza propioa bakarrik dugu helburu, asesinoak bihurtzen garela. Ikusmen intelektual motzekoak, bistan dagoenez. Soberbioak, ignoratzen dugula bilatzen dugun ezagutza unibertsala dena abarkatzen duela, dena hartu behar dela kontuan, joera hori behintzat eduki behar dela, halakorik lortu nahi bada. Eta ezinezkoa bada ere, ezagutza material orotik gain dagoelako, hori da duda barik modu bakarra onik ateratzeko, onik ateratzerik badago.

Badago santu bat ezagutza unibertetsala bilatzea zer daitekeen iradokitzen duena, eta hori da san Frantzisko Asiskoa, naturatik hasita, landareak, animaliak eta humanoak, krezazioaren bururatzea, hartzen zituena anaiatzat.

Jainkoaren legeak bide zuzena zein den argiro ere argiro deklaritzen digu, jakin badakigun arren hamaika bider falazietan jausten garena, bidez konfundidu egiten garela. Baina bidea zein den badakigu, eta ateoak ere badu bidea ezagutzen, soilik ez du helburua egiazkotzat, errealtzat, hartzen, baina bidea, behintzat zentzudunen artean, ondo ere ondo markatua digu Jainkoak. Eta guk molde naturalean badugu ondorioztatu ere, eta libre gara ongia ala gaizkia aukeratzean.

Artikulu honekin nik nahi dut komentatzea pixka bat, arrazoitzea, nola zientzia ere neutrala baino normatiba etiko zorrozt bati lotua ageri dela bere hastapenetatik, estua baita egia-rekin asmatu nahi duenaren bidea, desolazioz betea kosmos honetan, non soilik dugun, fededunok, esperantza argi bat, ez lortuko dugunik ezer, eta bai egia plenora iritsiko garela, eta hori ez dakigun inoizko garaian. Beste diferentziarik ez dugu ateoekin. Baina diferentzia hori erabakigarria da, zeren, gaur egun ikusten den moduan, bide diferenteak hartzen baititugu zientzia egiterakoan. Eta soilik bat bakarra da egiazkoa.

Adibide bat ipiniko dut, lege natural bat ondorioztatu zuen Kantek, honela dioena: “ez egizu inori zuretzat nahiko ez zenukeena”, lege hori unibertetsala dela ondorioztatu zuen Kantek, teologiari errepasorik egin gabe, soilik arrazoi garbiarekin lan eginez, halakoa baita lege naturala deitua. Ez zen ohartu, edo ez zuen erran, Jesusek hori berori agindu zuela, eginez halako laburpen bat, zeren erran baitzuen hor, lege horretan erresumitzen direla legea eta profetak. Urrezko norma bat, beraz. Eta inork ez du nahi aborto izatea, adibidez.

Zeren abortoa izatea zer da?, hierarkiaren azken lekuetan egotea, eta azken izatea sufrikizun gehien pairatzen den egoe-

ra da, nahiz eta hor ikasten ahal den gehien, filosofo batek esaten zuen moduan. Eta horregatik nik ez dut galtzen nire optimismoa giza abereaz, Faustok galdu zuen moduan bere lantegian pribazio gorriak besterik ikusten ez zuelarik. Agian fisonomista batek, ikusiz Socratesen zatarra, esan zion ezen bere baitan metatzen zirela greziarren bizio guztiak, zeren zatar izateak dakartza pribazioak, eta handiak, batez ere gazte garaian, maitasun gogoa pizten den garaian, eta hortik gaizkia iragarri fisonomista harek Socratesen aurpegieran. Nahiz eta Socrates izan definizioaren inguruan teorizatu zuen lehena, hasiz holaxe egiazko filosofiaren bide segurua. Baina inork ez du nahi azkenen artean egoterik, zeren gutxi baitira sufrikizun horri distraidu dutenak lan emankorrarekin. Fausto zientifikoa erori egin zen tentazioan, esperantza apurkorra guztiz ahaztuta pribazioen pribazioaz. Zenbat gehiago ez dira gaur egun eroriko fedea galdurik samar dabilenean humanoen artean.

Jainkoak pribazioarekin probatzen ditu humanoak eta hauek erori egiten dira. Ez da gertakizun unibertsala, topikoa da, zeren, kontra ejenplua jarritz, badaudelako erortzen ez direnak probatuak direlarik.

Roman Garmendia